

Irakurleari

Erronkari eta *Ansoko* toponimia aztertzea lan atsegina suertatu zait. Urte anitzetako lanaren emaitza bildu dut orrialde hauetara. Gaia hurbila dut. Betidanik egin nahi nuen. Buruan nerabilen karrera egiten hasi baino askoz ere lehenago. Henrike Knörr Borràs (†) irakaslearen maisugoari esker bete ahal izan dut beti amestu nuena. Maisuaren eskua nabaritzen da orri hauetan guztietan, zuzendari eta adiskide izan baitut urte hauetan guztietan.

Umetandik mendi goretara igotzeko zaletasuna izan dut. Hor adiskide minak egin ditut eta hor horietako batzuk utzi ere bai. Haiekin korritu nituen Belagoako eta Zurizako mendi guztiak eta honela ikasi nuen mendiak maitatzen, mendiek inor ere maite ez dutela ohartu gabe.

Askotan Belagoako aterpera joaten ginen, asteburuetan edo uda garaian. Hura izan zen nire bigarren etxea. Biarnoko artzainekin mintzatu izan naiz han. Halere, urte haietan ez nekien Belagoako aterpea ez zegoela Belagoan. Izan ere, *Puerto Grande* bortuan dago, hots, beste aurkintza batean. Orduan, ordea, ez nintzen horretaz ohartzen, ez bainintzen hartara toponimialaria, toponimia maite zuen mendizale euskaltzalea baizik.

Elurra ari zuen egun batean aterpean ginen eta mutil bat barrura sartu zen deiadarka, urduri, aurpegia itxuraldatua, haren laguna erori berria zela elurrak estalitako urjauzi sakon batean. Hara joan ginen berehalaxe eta sokekin atera ahal izan genuen handik. Buruan kolpe handi bat zuen eta odol ugari. Zulo hartatik atera ginen zibilak zain genituen beren zizpak bizkarrean. Belagoako aterpearen ondoan aduana zegoen garaia zen. Eta bai guri, baita konmozioak jota zegoen zauritu gaixoari ere nortasun agiria eskatu ziguten berehala. Paperak zioen tokikoa nintzenetz galdetu zidaten, baina nik bertakoa nintzela erantzun nien. Ni etxean nintzen eta zauritu bat genuen ospitalera eramateko beharra.

Urte haietan euskara ikasten nuen nire auzoko gau eskolan eta, hori zela eta, lagunak mendien izenei buruz galdezka aritzen zitzaizkidan sarri. Tarteka, galdera baten erantzuna banekien eta poztzen nintzen izugarri. Gehienetan ilunak gertatzen zitzaizkidan toponimo gehienak eta orduan ez nekiela esaten nien, hiztegian kon-

tsultatu behar nuela. Hiztegiek, ordea, ez zidaten beti erantzunik ematen. Nire mendizaletasuna eta nire jakinmina handituz joan ziren eta jarraitu nuen mendietara igotzen eta neure buruari mendi haien izenei buruz galderak egiten.

1986ko udan Ixabel Intza, Adolfo Ortega eta hirurok *Anso* Ibarrera joan ginen. Egun haietan artxiboan aritu ginen datuak biltzen. Lana oso arin egiten genuen, hiru baikin. Alkateak ICONAko jagole Felix Ipas jauna aurkeztu zigun. Hirurogei bat urte zituen. Oso gihartsua eta mendian oso ongi moldatzen zena. Berarekin ibarreko txoko guztiak korritu genituen. Haren ahotik ateratzen zen guztia grabatzen nuen nire grabagailuan. Done Mikel eguna guztiz gogoangarria izan zen. Egun hartan Guarrinzara jaitsi ziren artzain *cheso* guztien abelgorriak. *Txesook* hango hizkeran *Echo* ibarrekoak dira. Halako batean, hor ginen gu nafar-aragoieraren herrian, *fabla* entzuten, bizi-bizi. Ipas jauna agurtu zuten irribarretsu eta berak aurkeztu gintuen. *Txesoz* ari ziren haien artean eta Ipas jaunarekin, guri gaztelaniaz mintzo zitzaizkigun, ez naiz oroitzen zertaz. Grabagailua ateratzekotan izan nintzen, baina ez nintzen ausartu. Lotsa eman zidan giro lasai eta barnekoi hura haustekak. Ustekabea, zerua urratzen ari zela begitandu zitzaigun, harrabots izugarri bat entzun zen gure buruen gainean eta itsumustuan Espainiako Aire Armadako bi ehiza-hegazkin sartu ziren abiadura handiz *Guarrinza* goi ibarrean eta lurretik metro gutxira Aguatuerta aldera jo zuten behiak uxatuz eta izutuz.

Harridura gainditu ondoren, Felix Ipas jaunari toponimoen izenak ansotanera eman zitzaizkion eskatu nion eta berak, adeitasun handiz, halaxe egin zuen eta Ansoko hizkera grabatu ahal izan nuen honela.

Urte bereko neguan hasi nintzen Izabako Udal Artxiboan (UA) abolengo liburuaz aztertzen eta datuak biltzen. Timoteo Karrikiri udaltzainak laguntza eman zidan artxiboko lan honetan. Doktorego ikastaroak egiten hasi nintzen orduan eta urte batzuen buruan gorago aipatu lana eman ahal izan nuen doktorego programaren barruan. Urte haietan Burgiko seme Eusebio Tolosana Alastuey 'Modesto' jaunaren laguntza ordainezina izan nuen. Berari esker Orestes Tapia jauna, Izabako alkate ohia, ezagutu nuen. Dauden lekuan daudela, haientzat nire esker ona.

Urte batzuk geroago, 1992ko Eguberrian, Izabara itzuli nintzen berriro. Orduan Justo Bake Salbotx jauna ezagutu nuen. Ezin zen erraztasunez ibili baina moldatzen zen makilekin. Gustukoa zuen nirekin autoan bidaiak egitea herriko ibarretan barna. Guztiz gustura nengoen berarekin oso atsegina baitzen eta, agian horregatik, luzatu ziren Izaban eman nituen egunak eta egin nituen bisitak. Haren etxera joaten nintzen bakoitzean bere errainak kopa bat patxaran eskaintzen zidan eta honela, baratxe-baratxe, pazientziatsu eta patxadatsu hasten zen Justo Izabako toponimiaren buruxkak aztertzen, nik kopatxoa eskuan edo ezpainen nuela.

Behin batean Belagoako Zokoan sartu ginen autoarekin Justok pista ongi zegoela esan baitzidan. Harri gehiegi zeuden. Pista ez zen hain ona, bihurgunez eta ur zuloz beteta. Atzera egin nahi nuen nik, baina aurrera segitzeko esaten zidan berak; egia esan, ezinezkoa zen atzera jotzea. Errekara, sakanera, iritsi ginen. Lehor ze-

goen eta zeharkatzeko esan zidan, hor autoak pasatzen omen baitziren eskuarki. Atzera egiterik ez nuenez amore eman nuen eta beribila berez ibili gabe dilindan gelditu zen errekaeren ertzean. Atera nintzen eta orduan ikusi nuen beste auto bat errekaeren beste aldean, abandonaturik, naturak desegiteko utzia. Ahaztu ezinezko uneak bizi izan genituen elkarrekin.

Egun hartan Urzainkin izan ginen Nikolas Nekotx 'Argonz' jaunarekin hitz egiten, Justoren adiskidea baitzen. Justok esan zion Urzainkin berriemate bat behar nuela eta berak eman behar zidala laguntza ni haren adiskidea nintzelako. Nikolasek ez zuen aukerarik izan ezetz esateko. Gero aitortuko zidanez, beste batzuk joan omen zitzaizkion kontu berberarekin, toponimoak eta beste ezagutu nahi zituela; baina berak ez zituen onartu, ez baitzen ongi moldatzen hiriko iker-tzaileekin.

Nikolasekin egon ondoren etxera itzuli ginen; bidean hurrengo asteko bidaia prestatu genuen. Justok gogoratu zidan Maze ibarrera joan behar genuela, ibarreko pistan gora Mazeibarbururaino. Handik erakutsiko zizkidan Erronkaribarko eta Anso ibarreko lurak. Honela hitzartua gelditu zen. Justok bidaia hori egin nahi zuen denbora luze baitzeraman hara joan gabe.

Hurrengo astean, berriz, euria egin zuen eta ezin izan nintzen Izabara joan. Ondoko asteetan gertatu zenaz ez naiz oroitzen, baina Iruñeko artxiboetan lan egin behar nuen eta, gainera, eskolak eman ere bai. Ez nuen astirik eta Izabara ez nintzen itzuli. Behin telefonoz deitu nion Justori eta bidaia egin behar genuela gogoratu zidan, eguraldi ona egingo zuenean. Baietz esan nion nik. Handik gutxira Justoren heriotzaren berria iritsi zitzaidan gutun baten bitartez.

Nikolas Nekotx jaunarekin izan nintzen azken egunean biok hunkituta geunden, Justoren adiskide mina baitzen; orduan eskailerak jaitsi genituen eta bere etxeko atariraino lagundu ninduen. Eskua luzatu zidan, eta nirea estutu zidan sendo-sendo. Orduan alde egiten ari nintzela, ozenki hitz egin zidan berak, erdaraz hauxe zioela: «Ea nik esandakoa baliagarria zaizun eta bikain ematen dizuten; bukatu orduko etorri kontatzera».

Erronkariko eta *Ansoko* toponimia biltzearekin lana ez zen bukatu. Behar-beharrezkoa zen ondoko ibar horietako toponimia aztertzea, ezin iker zitezkeelako Erronkarikoak auzo ibarretako leku-izenak kontuan hartu gabe. Urte asko eman nituen handik hona. Behin Somporten ia galdu genuen bizia elurrak gauean mendi gainean harrapatu gintuenean, baina artxiboak bisitatu behar nituen. Zuberoan izan nintzen, Santa Grazin. Txomin Peillen irakaslearen iritzia eskatzera joan nintzen. Haren aholkuak oso kontuan hartu nituen eta Santa Graziko toponimiaz egina nuen bilketa orraztu zuen. Barétousen eta Aspen hainbat Aste Santu eman nituen. Issor eta Lées-Athas herrietan. Ibar eta herri hauek kultura gune beretik sortu ziren eta hizkuntza berberen eragina jasan dute. Haien toponimiaren itzala gure eremuko leku izen batzuetan antzeman daiteke.

Arette izan zen gogokoen izan nuen herria. Han lagun bat aurkitu nuen. Adeitsua eta zintzoa. Herriko ohorezko alkate Jean-Marie Lonné-Peyret jauna. Izabako Orestes Tapia jaunaren bitartez ezagutu nuen hura. Orestes adinean sartua zegoen eta bazera-man hainbat urte Ernazera igo gabe. Aurkintza hartan, uztailaren 14an, Hiru Behien Zergaren besta handia egiten da. Han biltzen zen harekin urtero. Beraz, baziren urte asko bere adiskide Jean-Marie ikusten ez zuela. Orestes jaunak eskatu zidan, Jean-Marie jaunari eskuminak emateko, biziki ederresten baitzuen. Orestesen mandatuia bete nuen. Jean-Marie poztu zen guztiz, berak ere Orestes gogoan zuen eta. Eretako ostaturik hoberenean gela bat gorde zigun eta haren gonbidatuak izan ginen.

Lonné-Peyret jaunak lotura estua izan zuen bere garaian Nafarroako Foru Aldundiko agintariekin eta, bereziki, Iruñeko alkate Miguel Javier Urmeneta jaunarekin. Hari eskuminak emateko agindu zidan berak. Izan ere, nazioarteko errepidea egiten ari zirelarik behin baino gehiagotan etorri zen Iruñera bere proiektua defendatzera. Eta hura izan zen onartu zena; berak esandako lekutik igarotzen da errepidea. Espeleologo adiskide mina zen bera. Norbert Casteret, Marcel Loubens, Haroun Tazieff, Jose Bidegain, Georges Lépineux, Felix Ruiz de Arkaute izan ziren haren lagunak. Larrako mendigune karstikoko leize bati *Gouffre Lonné-Peyret* izena eman zioten haren omenez. Bertan hil zen Ruiz de Arkaute, bere laguna:

Le 24 août 1971 notre excellent ami Félix Ruiz de Arcaute est mort dans le Gouffre Lonné-Peyret, terrassé par une crise cardiaque alors que déjà très fatigué il remontait une cascade.

Mendia, gorago esan dugu, errukigabea da, bera maite dutenekin bereziki. Zorigaitz beltzak, txantxa ankerra dirudi, bere izena zuen leizean jo zuen. Jean-Mariek gehien maite zuen tokian. Herioa hurbildik ezagutzen zuen, ordea. Hau ez zen lehenbiziko aldia. Urte batzuk lehenago bere adiskide Loubens hil zen *Gouffre Lépineux* izeneko leizean, alegia, San Martin Harriko leizean. Honek ere bere lagun baten izena zuen amildegi batean galdu zuen bizia¹.

Tesi bat idazteko mila arrazoi...

* * *

EN EL COLLADO DE ARNAZ

al espeleólogo Marcel Loubens

En el collado de Arnaz
muga de Francia y España
a España le paga Francia,
cada año el trece de julio
desde tiempo inmemorial
un tributo de tres vacas.

¹ Horiek guztiak, hala ere, bizirik zeuden Lonné-Peyret jaunaren bihotzean, nire maisu maite Henrike Knörr Borràs adiskidea nirean dagoen bezala.

Ya se llega a San Martín
Sima honda y renombrada
el espeleólogo Loubens
el año cincuenta y dos
el día quince de agosto
a Dios le entregó su alma.

Sigue carretera a Francia
y a España le dice 'adiós',
porque allí está el mojón de mugas
doscientos sesenta y dos
y el que ha escrito estas líneas
es Justo Bake Salbotx
para recordar la fecha,
año del noventa y dos.

Justo Bake Salbotx
Izaba, 1992

Juan Karlos Lopez-Mugartza